

getxoBerri

/ Nabarmenezkoak

- > Merezimendu-dominak babes zibilaren arloan (2. or.)
- > Bertoko bederlatzi talde eta artista arituko dira asteburu honetan GetxoLive jaialdian (3. or.)
- > Getxok jasagarritasunarekin duen konpromisoa bultzatu du, Tokiko 2030 Agendaren Ekintza Plan berria onartuta (4. or.)



Dantza. Martxoak 1 (larunbata), 20:00etan, Muxikebarrin, "Firmamento", La Veronalekin. 25€.

Abra Saria. Otsailak 22 (larunbata), 18:00etatik aurrera, Algortako zenbait tokitan, 8 bertsolari gaztek jokatuko dute txapela.

**A-
GENDA**

GetxBai plataforma digitalak izapideak erraztuko dizkie herritarrei eta udal baliabideen kudeaketa hobetuko du

Udalarekin izapideak egitea errazagoa, azkarragoa eta erosoagoa izango da, plataforma digital berria jarri baitu martxan, herritarrek beren zergak, tasak eta beste administrazio-prozedura batzuk errazago eta segurtasun handiagoz kudeatu ahal izateko. Zalao Campillo Modernizazio eta Eraldaketa Digitaleko zinegotziak nabarmendu duenez, "proiektu honek herritarren beharrei erantzuten die, udal zerbitzuetara modu arin eta errazagoan sartzea ahalbidetuz. Administrazioaren digitalizazioari esker, bizilagunek erosoago, azkarrago eta efizienteago egin ahal izango dituzte kudeaketak, arazorik gabe, beharrezkoak ez diren izapideak egin gabe eta joan-etorririk gabe. Horrek Udalarekin duen esperientzia hobetzeaz gain, arreta hurbilagoa, irisgarriagoa eta kalitate handiagokoa ere bermatuko du".

Proiektu hau Udal Eraldaketa Digitaleko estrategiaren parte da (GetxoBAT proiektua), eta 2025ean inplementazio-fasean sartu da, guztira 7 milioi euroko inbertsioa duela, eta horietatik ia 4 milioi euro finantzei dagozkie. "Modernizazio horri esker", adierazi du Campillok, "Getxoko Udalak administrazio modernoagoa, sinpleagoa eta eraginkorragoa izateko bidean aurrera jarraitzen du. Zerbitzu arinagoa eta irisgarriagoa eskaini ahal izango du, itxaronaldiak murriztuz eta zergen kudeaketa erraztuz. Gainera, Ogasunaren arloan, eragin esanguratsua izango du, udalaren diru-sarrerara propioen urteko bilketaren eraginkortasunean gutxienez %3ko hobekuntza espero baita".

Burokrazia gutxitu, erraztasun gehiago eman eta erroreak murriztu
GetxoBairekin, herritarrek Udalarekin izango duten harremana



arinagoa izango da. Jada ez da hainbeste izapide aurrez aurre egin behar, errazagoa izango da kontsultak egitea eta ordainketak kudeatzea, eta zerga-informazioa gardentasun handiagoz eskuratu ahal izango da. Zerga-administrazioa modernizatzeko aukera emango du "ordaindu behar duenak egin dezan; dagoene-

ko egiten duenak ez dezan zenbaterako handiagoan egin behar". Udal datu-baseak eguneratzeari eta kudeaketa-tresnak hobetzeari esker, akatsak murriztuko dira eta diru-bilketa bidezkoagoa eta orkatuagoa bermatuko da.

Orain arte, eraldaketa digital horretan funtsezko urratsak eman

dira, hala nola:

- Ordainketa-prozesuak bateratzea eta sinplifikatzea.
- Udal ikuskapen fiskaleko zerbitzua abian jartzea, sistema orkatuagoa bermatzeko.
- Akordioa Bizkaiko Foru Aldundiarekin, kobrantzen kudeaketa hobetzeko.
- Datuak digitalizatzea, ordainagiriaren eta izapideen kudeaketa optimizatzeke.
- Kontrol eta segurtasun handiagoa udal-baliabideen kudeaketan.

Gabeziak zuzendu eta diru-bilketa hobetu

Sistema hobetzeak zergen kudeaketaren gaineko kontrol handiagoa ahalbidetuko du, prozedurak argiagoak eta eraginkorragoak izango direla ziurtatuz. GetxoBai-ri esker, gainbegiratze-mekanismoak indartu egiten dira, administrazioa eraginkorrago izan dadin eta hobeto aprobetxa daitezkeen udal-baliabideak.

Isunen eta zergen 60.000 ordainagiri preskribatzeari buruzko azken berriak, 7,3 milioi euroko galera ekarri duenak, agerian utzi du prozesu administratiboak indartzeko beharra. Hala ere, Udalak ez du murrizketa ekonomikorik jasango, 20 milioi euroko hornidura baitu kaudimengabeziatarako, eta horietatik 16,2 milioi bi urtetik gorako antzinasuna duen zorrari dagozkie.

Bost urtean 6 milioi euro baino gehiago aurreztu

Eraldaketa digitalaren eraginaren azterketak adierazten duenez, ezarpenaren hirugarren urtetik aurrera, eraginkortasun ekonomikoak egindako inbertsioa gaituko du, eta bost urtean 6 milioi euro baino gehiagoko aurrezpen metatua sortuko du.

Whatsapp eta Telegrameko bi kanal berrietarako harpidetza

Herritarrekin komunikazio arina, zuzena eta hurbila izateko konpromisoan aurrera egiten jarraitzeko, Udalak WhatsApp eta Telegrameko bi kanal berri jarri ditu martxan. Udallerriko abisua eta informazio garrantzitsua jaso ahal dira jada sortutako kanal berri horien bidez, tokiko intereseko albiste, alerta eta ekitaldietarako sarbidea errazteko. Zerbitzu horren bidez, herritarrek erraz eta azkar zirkulazio-etenen, larrialdi-abisuen, jarduera garrantzitsuen edo beste edozein infor-



mazio baliagarriren berri izan ahal izango dute. Harpidetza egiteko, nahikoa da Getxo Udala-ren kanalekin bat egitea QR kodeen bidez jakinarazpenak aktibatuz.



Zalao Campillo Komunikazio eta Eraldaketa Digitaleko zinegotziak adierazi duen bezala, "ekimen honen bidez, Udalak beste urrats bat eman du eraldaketa digitalaren eta komunikazioaren aldeko apustuan, eta gure egunerokoaren parte diren tresnekin egiten dugu".



OTSAILAK 20 OSTEGUNA

Ipuinaren ordua. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, "Un poquito de aventura y de la buena, por favor" (gaztelaniaz), Cataplinaekin. 3 urtetik aurrera.

Zinemabari. 19:00etan, Muxikebarrin, Molly Manning Walkerren "How to hace sex" (AJB). 16 urtetik aurrera. 3,50€.

Hitzaldia. 19:30ean, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "Las pagodas de Pagan" (gaztelaniaz). Hizlaria: Emilio Melón. Antolatzailea: Mugabarik-Garapen pertsonal eta komunitariaroko elkarte.

Literatura solasaldia. 19:45ean, Algortako Kasinoan, Han Kangaren "La clase de griego" liburuar buruz (gaztelaniaz).

Solasaldia. 19:00etan, Villamonteko Kultur Aretuan, Guatemalako emakume indigenek pairatzen duten indarkeria obstetrikoari buruzko azterlanaren aurkezpena (gaztelaniaz). Antolatzailea: Medicus Mundi, Udalaren laguntzarekin, besteak beste.

OTSAILAK 21 OSTIRALA

Helduentzako ipuin kontalaria. 19:00etan, Romo Kultur Etxean, "Historias de Sanquetepueblos" (gaztelaniaz), Maricuelarekin.

Kontzertua. Getxo Live. 20:00etan, Muxikebarrin: Vittersweet, Txerri Ugerrak eta Skimales. 5€ (abonamendua 12€).

Zine kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Fernando Trueba eta Javier Mariscalaren "Dispararon al pianista" (AJB). 12 urtetik aurrera. 3,50€.

Hitzaldia. 19:30ean, Benta gunean (Angel etor. 49) "ETA, yo te absuelvo. El papel clave de la iglesia en el proceso de Burgos" liburuararen egilea den Pedro Ontosoren eskutik (irakaslea, kazetaria eta idazlea).

OTSAILAK 22 LARUNBATA

Kontzertua. Neguko bidaia zikloa. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Alma de México (mariatxia). Sarrerak agortu dira.

Kontzertua. Getxo Live. 20:00etan, Muxikebarrin: Gildas, Mississippi Queen & The Wet Dogs eta Los Brazos. 5€ (abonamendua 12€).

Abra Saria. Algortan, 8 bertsolari gaztek Abrako txapela jokatu dute. 18:00etan, 1. kanporaketa Abian elkarte; 19:30ean, 2. kanporaketa Salsidu tabernan; eta 21:00etan, finala Azebarri txoan. Sarrera dohainik.

OTSAILAK 23 IGANDEA

Euskal Herriko II. Piano Jaialdia. 10:00etatik aurrera, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan. Antolatzailea: EHME- Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarte. Sarrera dohainik.

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Blue Thermal" (gaztelaniaz). 2,50€.

Haur zinea. 17:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Lucius Dumben berebiziko bidaia" (euskaraz). 2,50€.

Kontzertua. Getxo Live. 18:00etan, Muxikebarrin: Rock & Kids, Germán Jauregi eta Akatz. 5€ (abonamendua 12€).

OTSAILAK 25 ASTEARTEA

Kontatu erretratu hau. 18:00etan, AJANeren egoitzan (Juan Bautista Zabala 6), Getxoko ondarea argazkien bidez identifikatzeko tailerra. 60 urtetik gorakoentzat.

OTSAILAK 26 ASTEAZKENA

Kontatu erretratu hau. 18:00etan, Romo Kultur Etxean, Getxoko ondarea argazkien bidez identifikatzeko tailerra. 60 urtetik gorakoentzat.

Versadas. Olerki-kluba. 19:00etan, Algortako Kultur Etxea (Villamonte). Miren Agur Meaberren lanari buruz.

Hitzaldia. 18:30ean, Urgull Zentroan, "Historia del Arte. Las mujeres que nos hacen bien". Hizlaria: Silvia Carcano. Antolatzailea: AJANE eta EurGetxo.

OTSAILAK 27 OSTEGUNA

Zinemabari. 19:00etan, Muxikebarrin, Georgia Oakleyren "Blue Jean" (AJB). 12 urtetik aurrera. 3,50€.

OTSAILAK 28 OSTIRALA

Antzerkia. 20:00etan, Muxikebarrin, "Epaiketa arrotzari" (euskaraz) Barandi Produccioneseekin. 8€.

Zine kluba. 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Christopher Zallaren "Radical" (gaztelaniaz). 12 urtetik aurrera. 3,50€.

MARTXOAK 1 LARUNBATA

Erakusketa. Algortako Azokan, Ricardo Villarren "La acuarela de cerca". Hilaren 31ra arte.

Ipuin kontaketa: Storytime for babies. 11:00etan, Algortako Kultur Etxean (Villamonte), "A present for Granny" (ingelesez). 3-7 urte. Izen ematea dohainik: getxo@kidsandus.es / algorta@kidsandus.es

Dantza. 20:00etan, Muxikebarrin, "Firmamento", La Veronalekin. 25€.

MARTXOAK 2 IGANDEA

Zinemaxiki. 12:00etan, Muxikebarrin, "Flow, un mundo que salvar" (gaztelaniaz). 2,50€.

Umeentzako antzerkia. 18:00etan, Muxikebarrin, "Elara, bidaia bat izarretara" (euskaraz) Mar-Mar teatroarekin. 3 urtetik aurrera. 6€.

- Urteetako esperientzia eta erreferentziak dituen emakumea, adinekoen eta/edo mendekoen zaintzaile gisa eta etxeko lanen bila dabil. Kanpokoa edo barrukoa. Harremanetarako telefonoa: 631 813 005. Emi



Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukaren egiazko-tasunaren erantzule izango.



Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprentsa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti SL. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Joal Express, S.L. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.

getxoBerri

Ekonomia dinamizatzeko laguntza berriak

Udalak, elkarteen jarduera sustatzeko eta elkarteen zeregina indartzeko, Ekonomia Dinamizatzeko Laguntzen deialdi berria eskatzeko epea ireki du, udalerriko profesionalen, merkataritzaren eta ostalaritzaren elkarteei laguntzeko. Horretarako, 207.000 euro bideratuko ditu guztira.

Eskabideak, oinarri espezi-fikoetan adierazitako doku-

mentazioarekin batera, telematikoki aurkeztu beharko dira, Udalaren web orrialdearen bitartez: www.getxo.eus

Diruz lagundu beharreko ildoak

1. ildoak. Getxoko merkatarien elkarteei eta ostalari nahiz jatetxeen elkarteei zuzendutako laguntzak, dinamizazio ekonomikoko jarduerak egiteko, baita elkarte

horietan bildutako Bizkaiko federazioei eta gainerako entitatei zuzendutakoak.

2. ildoak. Udalak sustatu nahi dituen arlo estrategikoetako profesionalen eta enpresaburuaren elkarteei zuzendutako laguntzak, dinamizazio ekonomikoko jarduerak egiteko.

3. ildoak. Getxoko merkatarien elkarteei eta ostalaritza- eta jatetxe-elkarteei zuzendutako laguntzak, elkarrekin mantentzeko eta sustatzeko.

Getxo Antirrazista Gazte taldea

Getxo Antirrazista Gazte taldeak hainbat jardura antolatu ditu hurrengo hila-beteetarako, aniztasuna eta kulturartekotasuna bultzatzen jarraitzeko helburuarekin. Horien artean, este-reotipoen eta aurreiritzien aurkako testigantzak landuko dituzte, Agharas elkar-tearekin topaketa bat izango dute, materiala diseinatu-ko dute eta European trukea prestatuko dute. Parte hartu nahi duten interesatuek 747 49 41 22 zenbakira dei dezakete harremanetan jartzeko.

LABURRAK

***Solosalidia Gurarin.** Eco-feminismo: vida, cuerpo y defensa del territorio goiburu duen solasaldia izango da ostiralean, otsailak 21, Gurari Emakumeen Etxean, Setem Hego Haizea GGKerekin elkarlanean antolatuta. Herritar guztientzat zabalik egongo den jardura 18:00etan hasiko da eta Yayo Herrerok eta Dalila Arguetak hartuko dute parte.

***Fadurako frontoien eraikineko obrek eragina izango dute.** Fadurako frontoien eraikinaren egitura indartzeko obrak direla eta, otsailaren 24tik 28ra bitarteko astean aparkaleku nagusia ezin izango da erabili hein handi batean, eta, beraz, ahal den neurrian, gomendatzen da egun horietan ez joatea ibilgailu pribatuen eremu horretara.

Halaber, eraikinaren barrualderako sarbidea egun horietan bertan aldatuko da, eta alboko ate batetik sartu beharko da.



Merezimendu-dominak babes zibilaren arloan

Izaskun Martínez de Lizarduy Resano eta Francisco Javier Merino Mellado Getxoko udaltzainek eta Aritz Gorozika Legarreta Suteak Itzaltzeko Foru Zerbitzuko suhiltzaileak (sarjentua) jaso dute Eusko Jaurlaritzaren Larrialdien eta Babes Zibilaren Merezimendu-dolina, bereizgarri berdea duena, lan bikaina egiteagatik. Zehazki, 2024ko ekainaren 4an, hirurek, oso modu eraginkorrean, gazte bati lagundu zioten eta hura odolustea eragotzi zuten Algortako atari bateko beirazko ate bat gainera erorita, zauri larriak eragin zizkionean.



Getxoren esperientzia MigrADMI ekitaldian

Carmen Díaz Gizarte Kohesioko zinegotziak *Los retos y oportunidades de los municipios en la gestión de las migraciones y sus efectos* hitzaldia aurkeztu zuen aurreko otsailaren 13an, Kanaria Handiko Las Palmaseko Unibertsitatean. Zinegotziak Getxon izandako esperientzia azaldu zuen MigrADMI migrazioak, kultura-aniztasuna eta gizarte-bizikidetzaren kudeaketa planifikatzeko Administrazio Publikoentzako ekitaldian.



Esku Hutsik Sarien II.Gala

Esku Hutsik elkarteak haurdunaldi, perinatal eta jaioberrien doluaren esparruan lan egiten duten pertsoneri eta kolektiboeri euren zeregina aitortzen dien bigarren Sarien Gala ospatu zuen Romo Kultur Etxean, pasa den otsailaren 8an. Sari profesionala María García Cruces erizainak jaso zuen; banakako saria doluan dagoen ama eta elkarrekin kidea den Nerea de Barriori eman zioten, eta erakundearentzako saria Joste Solidarioaren taldeari.

STAFF



Euskal Herriko II. Piano Jaialdia

Igandean, otsailaren 23an, Areetako Andrés Isasi Musika Eskola Euskal Herriko II. Piano Jaialdiaren egoitzetako bat izango da, EHME-Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteak antolatuta. Gainerako topaguneak Alegria-Dulantzin, Arrasaten, Elgoibarren, Ermuan, Errenterian eta Villabonan izango dira.

Gure herrian Portugalete, Santurtzi, Berriatua, Bermeo, Trapagan eta Getxoko Andrés Isasi musika eskoletako interpretek parte hartuko dute. Emanaldiak 10:00etan, 11:30ean eta 13:00etan izango dira eta sarrera doakoa izango da.

Bertoko bederatzi talde eta artista arituko dira asteburu honetan GetxoLive jaialdian

Muxikebarrik Getxo Live jaialdiaren lehen edizioa hartuko du asteburu honetan, otsailaren 21etik 23ra. Bederatzi talde eta artistaren emanaldiak bilduko dituen ekimena da, eta Getxo Kulturak publikoa hurbiltzearen eta bertako bandak ikusaraztearen aldeko apustua egiten du.

Hiru egun hauetan, Getxoko zentroa bertako musikaren erakusleho bihurtuko da. Jaialdiak askotariko musika programazioa hartuko du adin desberdinetako publikoentzat, eta hainbat genero eta estiloz gozatzeko aukera izango dute: pop, rock, rap, soul, funky, ska... Emanaldiak hilaren 21ean eta 22an izango dira, 20:00etan, eta igandean, hilaren 23an, familiarizako jardunaldia, 18:00etan. Sarrerak (5€) eta abonamenduak (12€) Getxo Kulturako ohiko sal-tokietan eros daitezke.

Egitaraua

Jaialdia ostiralean hasiko da, hilak

21, Vittersweet abeslari eta konpositorearen emanaldiarekin, eta, besteak beste, *Granate* bere azken EParen abestiak eskainiko ditu. Ondoren, Romoko Txerri Ugerak taldea igoko da taula gainera, Nu-Metalaren intentsitatea eta hardcorearen basakeria uztartuz. Saioa Skimales taldeak itxiko du, rock fusio eta umore proposamenarekin.

Larunbatean, hilak 22, Gildasen swingaz gozatzeko txanda izango da. Ondoren, Mississippi Queen & The Wet Dogs arituko da, funky, blues eta rock & soul doinuekin, eta, eguna amaitzeko, Los Brazos arituko da, Bizkaiko eszenako erreferentziatzeko Rock and Roll taldeetako bat.

Azken eguna, hilaren 23a, igandea, familiarizako izango da. Lehenengo emanaldia Rock & Kids taldeak eskainiko du, publiko gazteari egokitutako erreper-torio ikonikoarekin. Ondoren, La

Voz saioan ezagutzera eman zen Germán Jauregui gaztea etorriko da, eta Akatz talde beteranoaren ska eta erritmo jamaikarrekin amaituko da jardunaldia.




Alma de México-ren kontzerturako sarrerak agortu dira

Mariatxiaren musika, Mexikoko nortasunaren sinbolotzat jotzen dena eta UNESCOk gizateriaren ondare kultural immaterial izendatu duena, larunbat honetan, hilak 22, iritsiko da Areetako Andrés Isasi Musika Eskolara, 19:30ean, Alma de México taldearen eskutik, eta Neguko bidaia kontzertu didaktikoen zikloaren barruan. Errezitaldian rantxerak, zezenketak, huapangoak, soinuak, boleroak eta vals mexikarrak entzungo dira, maitasun eza, landa bizitza, abertzaletasuna eta tradizioen ospakizuna jorratzen dituzten letrekin. Sarrerak agortu egin dira.



Bizkaia Zubia, burdinezko kolosoaren anatomiari buruzko liburu solidarioa

Jose Antonio Reyero gebotarrak *Puente Bizkaia. Anatomía de un coloso de Hierro*, Bizkaia Zubiaren alderdi teknikoak argitzen dituen lan sakon eta dokumentatua idatzi du. Argitalpen honen salmentatik sortutako diru-sarrera guztiak Alboko Esklerosi Amiotrofikoaren (ELA) aurkako borrokara bideratuko dira, eta, horrela, proiektu honen konpromiso sozial eta humanitarioa erakutsiko da. Liburuaren prezioa 35 eurokoa da eta Bilboko Itsasmuseumen, Bizkaia Zubiko dendetan (Areeta eta Portugalete) eta online (<https://labur.eus/wNctU>) eros daiteke.



“El palacio de Sotomayor”, Iñaki Bernaolaren eleberria

Iñaki Bernaola idazle eta Berangoko bizilagunak *El palacio de Sotomayor* bere azken lan literarioa aurkeztu du Algortako Kultur Etxean. Eleberri horren argumentuan, joan den mendearen lehen erdiko Espainiako historiako gertaerek hartzen dute parte, 1898an azken koloniak galdu ondoren izandako egoeratik hasi eta Gerra Zibila eta Asturiasko maquisera arte. Baina, era berean, Antonio Solana maisuak esperientzia desberdinez betetako bidaia inizatikoa egingo du.

Getxok jasangarritasunarekin duen konpromisoa bultzatu du, Tokiko 2030 Agendaren Ekintza Plan berria onartuta

Udalak beste urrats bat eman du jasangarritasunarekiko konpromisoan, Tokiko 2030 Agendaren Ekintza Plana onartu baitu, udalerrria 2027ra arte gidatuko duena. Ingurumenaren Tokiko Foroak bultzatutako plan horrek 5 ildo estrategiko, 21 programa eta 73 ekintza antolatzen ditu garapen iraunkorrean aurrera egiteko. Aipatutako aldirako, Planak arreta berezia jartzen du klima aldaketaren aurkako borrokan, zeharkako ardatz horrek bost ekintza arlo estrategikoak gidatzen baititu:

1. Udal-kudeaketa jasangarria
2. Herritarren parte-hartzea garapen iraunkorrean
3. Hiri-eraldaketa jasangarria
4. Natura-ondarea eta biodibertsitate kontserbatzea



5. Baliabideen erabilera arduratsua

Plan berria Tokiko Ingurumen Foroko kideen lankidetzari esker egin da; izan ere, 20 urte daramatzate Getxo udalerrira

jasangarriagoa izan dadin. Foroa Ekologistak Martxan, Urtealaiak, Gizatiar, Kontsumitzaileen Elkartea, Basozaleak, Getxo Enpresa eta Argia Fundazioko ordezkariak osatzen dute, baita ikastetxeetako, unibertsitateko eta ingurumen

sektoreko kideek ere.

Gainera, plana udalerriko beste proiektu nagusi batzuetan oinarritzen da, hala nola Legealdi Planean, Klima Aldaketara Egokitzeko Planean eta Soinu Giroa Hobetzeko Planean, Ingurumenaren Tokiko Foroaren eta herritarren proposamenak txertatzeaz gain (2024ko otsaileko ekarpenak). Ekimen horrekin, Getxok Tokiko Agenda 21en aldeko apustuarekin jarraitzen du, orain 2030 Agenda gisa eguneratuta, eta duela 20 urtetik iraunkortasunarekiko konpromiso irmoa mantentzen du.

Herritarrek Planaren dokumentu osoa eskura dezakete udalaren webgunean: <https://labur.eus/DhdWG>



Frantzian eraztuna ipini dioten txantxangorri bat iritsi da Bolueko Hezegunera

Bolueko hezeguneko Eraztun-keta Estazioko sareetako batek txantxangorri ale bat harrapatu du berriki, puntu horretan jarri ohi ez den eraztun bat zeramana. Eraztuna aztertu eta kontsultatu zutenean, ingurumen-teknikariak egiaztatu zuten iazko azaroan eraztuna jarri ziotela Sainte-Solineko hezegune txiki batean, Poitou-Charentes eskualdean, Frantziako erdi-mendebaldean, Atlantikoko kostaldearen ondoan.

Orain arte, 30 baino gehiago dira Boluen berreskuratu diren edo hemen eraztunak jarri eta ondoren beste estazio batzuetan berreskuratu diren txorien erregistroak. Azken horien artean, benarriz arruntak nabarmendu ditzakegu, EAeko Espezie Mehatxatuen Katalogoan sartuta daudelako. Horrela, Boluen eraztuna ipini zaion espezie horren ale batzuk geroago berreskuratu dira, hilabete batzuk geroago eta baita urte batzuk geroago ere, leku ezberdinetan kokatutako hainbat estazioetan: Treogat (Britainia frantsesa), Tei-

fi Marshes (Gales), Zeebrugge eta Glabbeek (Belgika), edo gertuagokoetan, Urdaibai Bird Center (Gautegiz-Arteaga), esate baterako. Beste espezie batzuk, txinbo kaskabeltza, adibidez, Eisenbergen (Alemania) agertu zen eraztuna jarri eta hilabetera; edo martin arrantzale bat eta kaskabeltz handi bat hilda agertu ziren Berangon eta Leioan, hurrenez hurren. Zeramaten uztaiari esker ezagutzen zen haien nortasuna.

Beste leku batzuetan eraztunak jarri eta gero Boluen kontrolatutako aleak are ugariagoak dira: Greifswalder uhartetik (Alemania) etorritako txantxangorriak, Chenac-Saint-Seurin-D'Uzeteko (Frantzia) dilindari bat, Pontequeso (A Coruña) txio arrunt bat, Jusliboleko (Zaragoza) martin arrantzale bat, Gautegiz-Arteagako eta Tor Paternoko (Erroma, Italia) enarak aurkitu dira. Halere, ugariak, berriz ere, benarriz arruntak dira, Belgikatik (5), Herbehereetatik (1), Suediatik (1), Txekiar Errepublikatik (1) eta Kantabrietatik (1) etorritakoak.



“Eskolak Tipi-tapa” oinezko esperientziak ikasleentzat, martxoan

Martxoan, udalerriko ikastetxeek *Eskolak Tipi-tapa* oinezko esperientziak antolatuko dituzte, Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara bitarteko ikasleentzat jarduera dibertigarria eta ahalduntzailea, Eskola Bideak proiektuaren barruan dagoena. Proiektu horren bitartez nahi da bizimodu aktiboak eta mugikortasun iraunkorra bultzatzea.

Eskolak Tipi-tapa ekimen berri honen helburua da haurrek udalerriko eskola-bideen ibilbideak ezagutzeko eta modu autonomo eta seguruan egitera animatzea, mugikortasun osasungarri eta jasangarriaren alde eginez.

Ikastetxe bakoitzak egun jakin bat izango du bere ikasleek esperientzia horretan parte har dezaten. “Horrela, oraindik ekimen hau ezagutzen ez duten familiek ekimenarekin bat egin ahal izango dute eta euren seme-alabek klasera modu seguruan joateko diseinatutako ibilbideak ezagutu ahal izango dituzte. Era berean, eskolara oinez doazenek ikaskide

berriei lagunduko diete beren esperientziak kontatuz, beren ibilbideak erakutsiz edo elkar ezagutzuz. Halaber, gainerako herritarrei erakutsiko zaie ikastetxeek mugikortasun osasungarri eta jasangarriaren aldeko apustua egiten dutela”, adierazi du Ingurumen Zerbitzuko zinegotzi ardura-duna den Iñigo Urkitzak.

Ibilbideetan zehar, ikasleek, boluntarioekin batera, horiek erabiltzeko ohitura hartu ahal izango dute, eta, horrela, bizi-ohitura osasungarri hori indartu ahal izango dute.

Izena emateko, ikasleek ikasgelan emango dieten inprimakia bete besterik ez da egin behar. Oso erraza da, eta behin entregatzen dutenean, jarduera honen parte izan daitezke.

“Ingurumen Zerbitzutik guraso guztiak animatzen ditugu ekimen hau babestera, aukera bikaina baita haurrek modu dibertigarri eta desberdin batean ikas dezaten”, aipatu du Urkitzak.



Algortako ludoteka berria egokitzeko proiektua lizitaziora

Udalak lizitaziora atera du Algortako ludoteka berria kokatuko den lokala egokitzea eta irisgarritasuna hobetzea aurreikusten dituen obra-proiektua, gobernu-taldearen (EAJ-PNV eta PSE-EE) eta Alderdi Popularraren aurrekontu-akordioaren ondorioa.

Proiektuaren aurkezpenean, Amaia Aguirre alkateak azaldu zuenez, ludoteka berria beste haur batzuekin taldean elkartzeko eta euskaraz jolasteko gunea izango da, beti ere hezitzaileekin batera. Horiek jarduera ludikoak, jolasak eta abar proposatuko dizkiete, helburu nagusia aisialdiko jardueren bidez euskararen erabilera sustatzea delako, hizkuntza modu dibertigarrian eta eskola-ingurunetik kanpo garatzen lagunduz. "Normalizazioaren alde lanean jarraitzen dugu, euskara ohiko hizkuntza bihur dadin gure eguneroko bizitzan eta espazio publiko guztietan presentzia bermatuz, gure hauteskunde-programan eta Legegintzaldi-planean agertzen den bezala. Talde politikoen arteko akordioak elkarrizketaren eta lan-kidetzaren apustua bermatzen du; herritarrekiko konpromisoa da baita beren bizi-kalitatea hobetzeko jardueretik ere".

Bestalde, Carmen Díaz bozermale sozialistaren hitzetan, "berri ona da pertsona guztientzat zainketa-hiri bat eraikitzen jarraitu ahal



Jarduera udal Gobernuak (EAJ/PNV eta PSE-EE) eta PPEk lortutako aurrekontu akordioaren emaitza da

izatea, eta aldi berean, lagunkoia gure familiekin eta haurtzaroarekin. Aisialdi hezitzailea sustatuko da, giro abegikorrean, berritzailean eta sortzailean, basoan oinarrituta, ingurunearen aldekoa. Proiektua aurrera eramatea posible egin duten taldeei eskerrak ematen dizkiegu eta alderdi sozialista beti aurkituko dute Getxoko herritarren bizitza hobetzea sustatzen duten akordioetan".

Eduardo Andrade, PPEko bozermaleak 2024ko aurrekontu-akordioari balioa eman zion, Algortan hainbeste itxaron duten ludoteka sortzea ekarriko duena. "Berriro esan behar dugu, udal-politikak gure familien kalitatea hobetzeko lan egin behar duela, eta, horregatik, bariantzen gaituenatik urrundu behar dugula, eta batzen gaituena bilatu,

Getxoren mesedetan. 2024an eta 2025ean aurrekontuak adostu ditugu PNV-EAJrekin eta PSErekin, ideiez, baliabide ekonomikoak eta konpromiso politikoz hornituz".

Gunearen ezaugarriak

Egin beharreko obrak 262,81 metro koadroko azaleran egingo dira, 516.527 euroko aurrekontuarekin (gehi BEZa) eta 6 hilabeteko egikaritze-epearekin. Padre Felix de la Virgen kaleko 2B eta 4 zenbakietan kokatuko den ludoteka berria energiaren ikuspegitik, lokal eraginkorra izango da, eta ia ez du kontsumorik izango, lurzoru erradiatzaile bidezko bero-kuntza-sistema erabiliko baitu, aerotermiaren bidez. Gainera, espazio inklusiboa izango da,

desgaitasuna duten pertsonentzat egokitu.

Hartzaile nagusiak 5 eta 11 urte bitarteko haurrak izango dira, aisialdirako jarduerekin, aisialdi hezitzailea euskaraz bultzatuz, bere erabilera adingabe bakoitzaren egoerara egokituz.

Gai nagusia eta izena: BASOA

Gaia basoa izango da, eta horregatik BASOA LUDOTEKA izena. Elementu natural horrekiko keina, balio erantsi gisa, non inguruan dugun ingurune naturala eta euskal mitologia zaintzearen garrantzia ere presente egongo diren. Hari hori espazioko dekorazio elementuetan ere egongo da.

Lokalak bi sarrera izango ditu. Baso baten itxura izango duen jolas aserako areto bat egongo da. Bertan, jarduerak, espazioak eta zirkulazioa ordenatuko dituzten bi zuhaitz izango dira eta muiño bat ere, harmaila gisa ikusizunetarako. Gainerako guneetan giro desberdinak antolatuko dira, hala nola arroparako tokia, ordenagailuen gunea (Pantailak euskaraz txokoa), urarekin jarduerak egiteko gunea, arbelak edukiko dituzten paretak, eta beharren arabera antolatuko den lekua. Etxeko sukalde bat, adin desberdinetarako komun egokiak, beste irisgarri bat eta erabilera anitzeko beste areto bat ere egongo dira.



Komun publiko berria, Andra Marin

Getxon komun publiko berri bat dago, irisgarria eta jada zabalik dagoena: Andra Mari auzoan instalatu dena, udal probalekuaren inguruan dagoen parkearen eta jolas eremuaren eta autobus geltokiaren ondoan. Dagoeneko 12 modulu daude udalerrian (horietatik 8 autogarriketa dutenak) eta aurreikusita dago aurten beste 3 komun jartzea: Santa Ana auzoan, Algortako Geltokia plazan eta Portu Zaharrean.

KIROLAK

Raspas Arraun eta Maialen Narbona ziklistaren garaipenak, estatuan

Bizkaiko Txapelketan lortutako emaitza bikainaren ondoren (8 domina), Raspas Arraunek Distantzia Luzeko Espainiako domina-zerrendaren lehen postua lortu du, Galizian duela egun gutxi. Guztira, urrezko hiru domina izan dira txapelketan eskuratutakoak, maila absolutuan: Esther Briz eta Izaskun Echaniz 2- ontzian, eta Virginia Diaz eta Aleix García skiflean (1x). Gainera, 4 sculleko (4x)

neskak txapeldun izan dira selezio autonomikoetako proban.

Bestalde, Maialen Narbona Punta Galea Tx.E.-ko txirrindulariak kadete mailan pistako iraupeneko proban lortutako Espainiako Kopari Espainiako Txapelketan Omniumeko proban irabazitako brontzezko domina gehitu behar zaio, hau ere pistan, hilaren hasieran lortutakoa.

Udal talde politikoaren iritzia



GETXO, AURRERA!

2025ean gaude, Getxoko Udaleko legegintzaldiaren ekuatorean. Eta Eusko Alderdi Jeltzalearen udal-gobernuko taldeak badu jadanik kudeaketako emaitzak aurkezten joaterik. Izan ere, zarata gorabehera, eta helarazten saiatzen dena alde batera utzita, gauzak ondo egiten ari dira.

Eta gure konpromisoak betetzen ditugu. Duela ia bi urte "Getxo, hiri zoragarria eta ilusio handien sorlekua" aipatu genuen, eta horretan ari gara. Aurrera jarraitzen dugu Getxo eraldatzeko prozesuarekin, Euskadin bizitzeko, lan egiteko eta gozatzeko hiri onena izan dadin, eta Getxoko EAJ-PNVk urteak daramatza prozesu horretan murgilduta. Prozesua, lana eta konpromisoa erreala dira, eta inork ez ditu lausotu behar.

Joan den astean TIKITOKI ZENTROA eman zen ezagutzera. Kiroleko jardueraren anitzeko espazioa da, ikuspegi soziala eta berrikuntzako duena, eta Getxoko kirolaren esparruko klub, erakunde, kirolari eta inguru

guztiek zoriondu dute. TIKITOKI Zentroa Getxo Kirolak entitateak eta pertsona eta erakunde askok egindako baterako lanaren ondorioz sortu da, eta jarraitzen dute Thinking Faduraren arima izaten; izan ere, parte hartzeko prozesu nabarmen horrek Fadura Kirol Parke barria sortzen lagunduko gaitu. Duela egun batzuk, halaber, martxan jarri zen Romoko Gizarte Zerbitzuen espazio berria, eta garrantzi handia dauka gure herriko pertsona zaurgarrienei arreta emateko hurbiltasunez eta bermatuz irisgarritasuna nahiz funtsezko zerbitzu horietaz baliatzeko aukera dutela.

Bidenabar, GURARI Etxearen sorrera ere ikusi dugu. Emakumeen Etxea da, non ahalduz, laguntza, lankidetzak eta espazio espezifiko horretan etorkizunean proiektuak egiteko.

EAJ-PNVn argi dugu kalitatezko proiektu eta zerbitzu horiek funtsezkoak direla



udalerrira eta herritarrek exijenteak diren aldetik. Hori dela eta, GetxoBai ere ari gara inplementatzen. Prozedurei eta izapideei dagokienez XXI. mendean kokatuko gaituen plataforma digital berria da. Udalak aukera izango du behar bezala modernizatzeko, eta Getxoko herritarrok merezi ditugun ardura- eta kalitate-estandarrekin egin ahal izango ditugu izapideak udalarekin.

Betetako konpromiso gehiago: Eusko Jaurlaritzarekin batera Venancio eta Urduñako Mendatearen kalean/Maidagan kalean garatzen ari diren 168 etxebizitza publikoak, batez ere gazteentzako. Horrez gain, Arene Parke berria ere jarri da martxan, kirolerako, aisialdirako eta jardueraren anitzeko espazioak dituen, eta oso balorazio onak izan dituzte obraren ingurua bisitatu dutenen aldetik.

Azken batean, Getxok aurrera jarraitzen du, eta EAJ-PNVk konpromisoak betetzen ditu. Getxo Aurrera!



2025EKO AURREKONTU-AKORDIOA: KONPROMISOA GIZARTE-ONGIZATEAREKIN ETA TOKIKO MERKATARITZAREKIN

Getxoko PPren, EAJren eta PSEren arteko 2025. urterako aurrekontu-akordioari esker, udal-kudeaketan aurrera egiteaz gain, **gizarte-laguntzen eta tokiko merkataritzari laguntzeko** neurri garrantzitsuak ere hartu ahal izango dira. Adostutako ekimenen artean, **gizarte-arretan** eta -ongizatean zeregin garrantzitsua betetzen duten erakundeentzako dirulaguntzak handitzea dago. Hortaz, **Gurutze Gorriak, Argia Fundazioak eta Sarekide Getxok babes ekonomikoa indartuko dute**, eta, horri esker, behar handiena dutenen mesedetan lan egiten jarraituko dute. Gainera,

DaleCandelari zuzendutako dirulaguntza berri bat bultzatu da. Irabazi-asmorik gabeko elkarteak da, **AEAREN** aurkako ikerketarako funtsak biltzen diharduena. Bestalde, **tokiko merkataritza** ere izango da akordio horren onuradun, eta laguntza berriak jasoko ditu; horrela, Getxoko garapen ekonomikoari lagunduko dio. Hori horrela, **leihatila komertzial** bat instalatuko da, logistika eta produktueterako sarbidea errazteko. **GetxoModari emandako laguntza handitzea** erabaki da, finantzaketa handitzeko eta jardueretara bideratutako partida indartzeko.



ehbildu

GETXOKO UDALAK 7 MILIOI EURO GALDU DITU

Otsailean jakin izan dugu Udalak zazpi milioi euro baino gehiago galdu dituela, bestelako gizarte-beharretara edo auzoetako inbertsioetara bideratu zitezkeenak. Eta zein da zazpi milioi euro hauek galtzeko arrazoia? Utzikeria, eraginkortasunik eza eta kudeaketa txarra, beste behin ere.

Kobratu ez diren zazpi milioi horiek hainbat isun, tasa eta zergari dagozkie, edota OHZ eta EJZ (Jardueraren Ekonomikoen gaineko Zerga) kobratzeari uztea. Galdu diren diru-sarre-

retako batzuk 2022. urtekoak dira, baina beste batzuk aspaldikoak dira. Beraz, jakin nahi dugu zergatik urte hauetan guztietan ez den arazo hori konpondu (kontuan hartuta EAJk urte hauetan guztietan kudeatzen duela arlo hori, eta, zehazki, zinegotzi bera 2015etik).

Egoera horren aurrean, EH Bilduk galdera sorta bat erregistratu du Ogasun Batzordean, zer gertatu den jakiteko eta, hala badagokio, erantzukizun politikoak eskatzeko. Prentsan irakurri ahal izan dugunez, 2017an

Udalak tresna informatiko bat erosi zuen, eta lan-karga automatizatu edo murriztu beharrean, handitu egin zuen, zerga-kudeaketarako gora-behera larri ugari zeudelako.

Besteak beste, jakin nahi dugu egia ote den programa horrek zigor eta zerga horiek kobratzea zaildu zuela; programa informatiko hori martxan jartzeagatik Udalak ordaindu zuen zenbatekoa, eta nor izan zen enpresa hori kontratatzeke erabakia hartu zuena. Halaber, galdetuko dugu ea egia den lan hori egiteko azpikon-

tratututako enpresak bere software propioa ote zuen, eta ea horrek udal-talde teknikoari zaildu ote zion espedienteak banan-banan berrikustea. Jakin nahi dugu zenbat kostatu zitzaizkigun enpresa horren lanak, zenbat bildu zuen, zergatik erabaki zen enpresa bat kontratatzea udal-lan hori egiteko, eta abar. Kobratzeari utzi zaizkion zor handienak, antza denez, dagoeneko iraungita edo hartzekodunen konkurtsoan dauden enpresei dagozkie. Halaber, enpresa horiek zeintzuk diren azaltzeko eskatuko dugu.



GIZARTE-ZERBITZUETARAKO ESPAZIO ERABERRITUA ESTREINATU DU ROMOK

PSE-EE taldeak kudeatutako Gizarte Kohesio Arloko murgilduta dago **Getxoko Gizarte Zerbitzuak hobetzeko prozesuan. Romoko Gizarte Zerbitzuen eraberritzea eta handitzea** aurkeztu dugu berriki, espazioak eta baliabideak herritarren egungo eskarrietara egokitzeko premiari erantzuteko. Carmen Díaz eleudun sozialistak eta Gizarte Kohesio zinegotziak adiera-

zi duenez, "espazioa handitu eta berriro diseinatu dugu aukera eman dezan **profesional-kopurua areagotzeko**, esku hartzeko eredu atseginagoak eta abegitsuagoak izateko, **konfiantza sortzeko, bereziki familiei eta haurrei laguntzeari dagokionez**". Espazioak 206 metro koadro zituen, eta, handitu ostean, 386. Horrek aukera ematen du gizarte-langileentzako sei bulego iza-

teko, hiru arreta administratiborako eta beste zazpi postu gizarte eta hezkuntzan esku hartzeko eta esku-hartze psikosozialerako (gizarte-hezitzaileak eta psikologoak). Horrez gain, bilera-gela berri bat ere badago, barne koordinazio beharrezkoa bideratzeko, bai eta beste sistema batzuekin ere, hala nola Osasun, Hezkuntza eta Diru-sarrerak bermatzekoarekin.



AHOLKULARIAK

Amaia Agirrek beste aholkulari bat izango du Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean (HAPO) lan egiteko. Urtean 62.000 euro baino gehiagoko soldata izango du, eta Alkatetzak nahiago du pertsona hori nahierara aukeratzeko, Hirigintza Arloari arkitektoak, aparejadoreak eta administrazioko teknikariak eman beharrean, nahiz eta plantillak hori behar duen. Zentzugabekeria da, erabateko ukoa egiten diogu eta jarraituko dugu salatzen.